

KONTROL MOZIOA

Martuteneko Arantzazuko Ama ikastolaren inguruari buruzkoa

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2022ko otsailaren 14an Gune Publikoen Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Urtarrilaren 24an 13:10ak inguruan Martutenerako norabidean zihoan auto bateko gidariak kontrola galdu zuen eta Arantzazuko Ama ikastolaren hesiaren kontra joan zen.

Kolpeak ez zuen inor zauritu, eta ibilgailua ikastetxeko jolastokiko hesian sartuta geratu zen, sarrera nagusitik metro gutxira.

Azken istripu honek Martuteneko bizilagunen eta Arantzazuko Ama ikastolako komunitatearen aspaldiko kezka areagotu zuen eta Donostiako Udalari neurriak hartzeko eskatu zioten.

Guraso elkarteak aspaldi eginda zuen eskolaren ingurua baretzeko eskaera. Jakina baita Arantzazuko Ama errepidez inguratutik dagoela lau alboetatik, horrek dakarren arriskuaz. Eraikinaren aurrealde osoa zeharkatzen duen errepide nagusia (Martutene pasealekua, Donostia Astigarragarekin eta Hernanirekin lotzen duen errepide zaharra) bihurgune handi baten ondoren hasten den zuzengunea da. Horren ondorioz, zentroko sarrerak eta irteerak ez dira seguruak eta Udalari maiz eskatu diote segurtasuna bermatzeko neurriak hartzea, hala nola, bihurgunearen ondoren eskola-ingurunean sartzen dela adierazten duen seinale egokia eta abiadura-murrizketa egokia. Baita espaloia eta errepidea bereizten dituen hesi bat ere.

Otsailaren 4an Arantzazuko Amako ikastolako eta guraso elkarteko ordezkariak Udal Gobernuaren ordezkartza batekin elkartu ziren eskola inguruko neurriei buruz hitz egiteko. Bilera horretan ikastola eta guraso elkartearen eskaera izan zen eskola ingurua oinezkoentzat egokitzea, baina Udal Gobernuak hori ez duela egingo adierazi zuen. Hortaz, bitarteko neurri batzuk hartuko zituela adierazi zuen trafikoa baretzeko, hala nola, seinaleztapen berria jartzea, semafororen bat, badena jartzeko aukera edo autoen abiadura markatzen duen seinalea.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

Arantzazuko Ama ikastolarentzat eta guraso elkartearentzat, neurri horiek ez dira nahikoak segurtasuna bermatzeko, eta haien eskaerarekin aurrera egiteko asmoa dute. Hau da, eskola ingurua oinezkoa izan dadin eskatzen jarraituko dute. Helburua lortu bitartean, eremua orain baino seguruagoa izan dadin, espalioan hesi bat jartzea eta tona handiko trafikoa desbideratzea eskatu dute.

Honi guztiari buruz galdetu genuen otsailaren 4ko batzordean eta zinegotzi ordezkariak adierazi zuen seinaleztapena, badena eta semaforoa jartzea izango direla Udalaren neurriak, baina ez ingurua oinezkoa bihurtzea eta trafikoa desbideratzea.

Argi dago Udal Gobernuak hartu nahi dituen neurriek trafikoa arinduko dutela, baina eskola komunitatearen hitzetan, ez da nahikoa izango bertako ikasle, guraso eta langileen segurtasuna bermatzeko.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Arantzazuko Ama eskolaren inguruari buruzko azterketa bat egin dezan, trafikoa Tranbia kaletik bideratzeko aukera eta eskolaren aurrealdea oinezkoentzat bihurtzeko aukera barne hartzen dituen.

Donostian, 2022ko otsailaren 17an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia